AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

683

65/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 31koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ana Calvo Aguirre andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Eremuko Asistentziaren Koordinazioko zuzendari izendatzen duena, eta zerbitzu berezietan deklaratzen duena.

Aztertu dugu Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Eremuko Asistentziaren Koordinazioko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen abenduaren 20ko 1574/2013 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko urtarrilaren 10eko EHAAn.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ana Calvo Aguirre andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Ana Calvo Aguirre andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Donostia Unibertsitate Ospitaleko Fakultatibo Espezialista Ospitaleko Larrialdietako Medikua lanpostu funtzionalaren 13844 plazaren jabea dena, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Eremuko Asistentziaren Koordinazioko zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehena.– Ana Calvo Aguirre andrea izendatzea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Eremuko Asistentziaren Koordinazioko zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2014ko otsailaren 1etik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Ana Calvo Aguirre andrea zerbitzu berezietan deklaratzea, bere izendapena indarrean sartzen denetik.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.